

Txillardegi

Idazlea

Bakerako bideak

■ Hirugarren politika-gunea aurkitu omen du Elkarrik.

Ez omen da Bakerako bidea Ajuria-Eneatik pasatzen, eta are gutxiago HB-ETAtik. Multzo horiek proposatzen diguten bidetik at pasatzen omen da sendabidea.

Irakurle anitzek, horretara, eta ezinbestean, sendabide bakar hori Elkarri bera dela ondorioztatu dute.

Hots, eta honetaz gero, argi-eta-garbi aitortuko dut neurekikoa: ez naizela inoiz Elkarriko kide izan. Eta orain ere ez.

Lehengoan *Metaziria* izeneko artikuluan esandakoa aski izan ez dela sinetsita, garbikiago mintzatuko naiz gaurkoan.

Errespetu osoa diet nik Elkarriko kideei. Beste zenbait multzo *pakezalerekin* gertatu izan zaidanaz bestaldera. Jonani eta gainerakoei dagokienez, ez dut inoiz zalantza izpirik izan. Elkarri-kideengan garbi dago xedea: gure sofrikario azkengabe hauetaz ok eginda, Zuzenaren gainean ezarritako bakebidea bilatzen dute, herri gisako *eskubide kolektiboak* ere onartuko direlarik.

Eta, halere, ez esan diot beti Elkarri m gimenduari (eta orain ere, gauza bera esan-gu nuke). Zergatik?

Gaitzak sendatzeko bidea ez da inoiz izaten, nik dakidala, gaitza bere horretan utzi, egoeraren larria disimulatu; eta osasun-arazoa, hitz batez, alboratu, geroko aparkatu, eri denari aholku leunak emanaz: «goazen lehendabizi oinazeei lotutako tema horiek ahaztea motel, eta mediku hiletari bizkarra ematera. Lasai!». Alderantziz, gaitza zehazki erreparatetik hasten da egitekoa, eta erremedioa zaurian bertan jartzetik. Prediku lasaigarriak, gero. Ez lehenago.

Distensio bakarra hemen, kanposantuko sasi-baketik at, noski, nazio-*eskubideen* prozesorean *abatzeari* datzekio. Herri-zanpaketa onartzetik, ez dator, eta ez da

Errespetu osoa diet nik Elkarriko kideei. Beste zenbait multzo *pakezalerekin* gertatu izan zaidanaz bestaldera, Jonani eta gainerakoei dagokienez, ez dut inoiz zalantza izpirik izan

torke, inolako *distentsiorik*.

Zergatik agertu eta ugaltu dira *zapatista* gazteak Euskal Herrian, eta ez Murcian? Zergatik kale-istilu hazkor horiek gurean, Palencian eta Badajozen bake sainduan bizi direlarik? Nola uler daiteke zanpaketa bortitz eta pozoinketa guztiak saiatu ondoren ere, ETA osoki dueseztatuta ez egotea? Nola azal dezakete begizta urdinekoek 1875ean ere hemen *desordenu* gaitzak egotea, eta Madriletik zetozen trenek Mirandatik Iparrerrantz ezin jarraitzea? Zergatik ez da sortu Espainian barrena *violento/demócrata* binomioa?

Guk erantzun hau ematen dugu: hemen, Txetxerian bezala, *inperialismoa/nazio-pizkunde* arazo larria dagoelako. Gu ez gara espainolak, eta izan nahi ere ez. Horra hor gakoa.

Nazio-problema horri, bai hemen eta bai Kontxintxindan, erantzun hau dagokio: *Independentsia*. Burujabetza, helburu soil. Adjetibo guztiak sobera. Eta nahiz metropoli inperialistetan ikusmolde hau ulertezina izan.

Eta klase-helburuez zer, galdazake norbaitek. Yankiak, Viet-Namen zeude-nean, Ho-Chi-Minhek amerikarrek Viet-Namdik aldegitzea eskatzen zuen. Besterik ez. Gero vietnamdarrek berek nahi zutena egin zezaten.

Ideologiaren mailan, eta sozialismo *errearen* porrotaren ondoren, itxaron egin behar: Marx eta Bakunin herriak etorriko baitira. Artean, eutsi diezaiogun sindikalismo abertzaleari (ELA-LAB).

Eta azkeneko ohar bat: *abertzaleekin* erakikiko da Euskal Herria, ala ez da erakikiko. Euskal Herria *azkartu eta askatu nahi* duten gudariekien erakikiko da gure Aberria. Madrilerekin eskuz esku eta eroso ari direnekin... Cibeles-Plazara. ■

Iñaki Mendiguren



Korearrak eta gu

EAko Industri sailburua Hego Koreara omen doa lantegia gurean jar dezaten enpresariren batzuk komentutzera; izan ere, hemengo zirriparrak direla-eta zalantzan omen daude hona etorri ala beheraxeago Joan. Niretzat, bi aukera daude: Baliteke kontu hau gure lehiakideek asmatua, puztua eta erabilia izatea, enpresa eurenganatzeko. Edo izan liteke korearrek berek asmatua, xantaila modura, pribilegioak lortzeko.

Ez da oso egia kapitalak bakea beharrezko duenik; gerrarik latzenetan ere, kapitalak majo asmatzen du negozio bikainak egiten. Kapitalarantz arrisku txikia da gure kale-giroa. Gu merkeak zatea axola zaio. Beraz, Retegi jauna, esaiezu korearrei opor fiskalak ditugula, edo elkarrean gaineko zerga txikiagoa, edo... Esaiezu hemen zerga iraultzailea kobratzen dela, baina auzoko politikoei milioi gehiagoko komisioak kentzen dituztela beren aparatua koipeztatzeko (Filesa...). Eta gurean, enpresariak bahitu arren, ekonomia dotore portatu zela iaz (langabezia salbu, baina honek ez du zerikusirik enpresarien irabaziekien).

Herri honentzat ez ote dira gaztetxo harrikariak baino arriskutsuago egunero albiste txarrak leporatzen dizkiguten korbatadunak, datuak beren gerrarako erabiltzen dituztenak, edo zenbait soziologo, esaterako?

Rikardo Arregi Diaz de Heredia



Itzultzea

Hiru mila kilometro egin berri dut ene etxera, egunero bizitzara. Gasteizera. Euskal Herrira itzultzeko; eta beti bezala erori zait buru gainera ene aberria (euskarak ez du berba itsusi hau merezi) omen den munduko ipurzulo hau. Gau, ilun eta goibel, beti bezala. Irribarrerik ez jendearen aurpegian, beti bezala. Egunkarietako lehen orrialdeek zaunka, beti bezala.

Geltokian jaitsi den pertsona beltz bakarrak gure abegikortasun paregabea dastatzeko aukera izan du lehen minututik gainera, begira nola dagoen jantzita. Zergatik gustatzen zaigu hainbeste euskaldunoi berdin (baina taldeka) jantztea? Uniformeak (talde bakoitzak berea) maite ditugu sakon-sakonean?

Ene atariaren aurrean emakume gazte bat zakar-poltsak lotsarik gabe eta pazienteki arakaitzen hasi den une bereberean zirimirri jator eta tipikoan eman dit ongi/gaizki etorria, emakume gaztearen gau-lana errazteko bide batez.

Mingarrien artean mingarriena izan zait beti sorterrira itzultzearena, egun bakarra edo urte osoa kanpoan eman eta gero, oporretan nahiz lanean, itzulerak zientzia-fikziozko filmeetako denboraren makina baitakarkit gogora. Dena utzi nuen bezala, aspaldian bezala dago, urmahela baino geldiago. Adiskideak eta liburuak izan dira kontsolabide bakarra, eta soilik hemen entzun daitekeen hizkuntza.

L A P h I T Z A

